

Iñaki Mendiguren

Izan ere, *Spain is different*

E

uskal Herriko egoera politikoan funtsezko aldaketak gauzatzen ari diren garai honetan, itxaropena eta beldurra nahasten zaizkit barruan, beste askori bezalaxe. Ez dut ahazten frankismoaren bukaerako trantsizioa, nola-halakoa; ezin ukatu egoerak hobera egin zuela eta demokrazian irabazi egin zela, bidegabea litzateke hori ez aitortzea. Baina dena ez zen ondo egin. Erregimen zaharrak, egoera berriari amore eman arren, eragin-ahalmen handia izaten jarraitu zuen, eta ilungune nabarmenak geratu ziren (ez txikienak Espainiako segurtasun indarren eta justizia sistemaren jarraipena). Oraindik zeharo burutu gabeko trantsizio haren ondorioak nozitzen ari gara.

Orain, berriro, beldur naiz ETA edo borroka armatuaren aroa ez ote den osasuntsu eta buru-argitasunez itxiko; bukatu bai, baina erdizka eta lardaska. Zergatik diodan hori? Ba, beste bake prozesu arrakastatsu batzuetan izan diren zirkunstantzia lagungarriak gurean ez direlako ametzitzen; hemen larderia handi samarrez kitatu nahi dira azken 50 urteotako kontuak, eta garaileen edo ahaltsuenen bakea –benetako bakea izaten ez dena– ezartzeko tentazio handi samarrak sumatzen dira.

Antzeko zerbait ondorioztatzen da, baina askoz itzal eta eskarmentu handiagoz esanda, Brian Currinek joan den udan Miramar jauregian emandako hitzalditik: “Azken 20 urteotan hurbilenetik ezagutu ditudan bake prozesuak azterturik, funtsezko 9 eskakizun edo baldintza identifikatu ditut: horiek betetzen badira, konponbide negoziatu arrakastatsua ahalbidetuko dute; zenbat eta gehiago falta horietatik, orduan eta aukera gutxiago bake iraunkorra lortzeko”.

Hona hemen 9 baldintza horiek (eta bakoitzak ikusiko du gurean zenbateraino betetzen diren edo ez):

1. Maila politikoan premia lehenetsi partekatua sentitu behar dute protagonistek



DANI BLANCO

konponbide baketsu eta negoziatua lortzeko. 2. Bi aldeetan buruzagi politikoez beren indar armatuen babesia izan behar dute: batzuek Estatuaren indar, armada eta polizia ofizialarena, eta besteek militante ez-ofizialena. 3. Protagonisten arteko konpromiso iraunkorra behar da konponbide baketsu eta negoziatuaren alde. 4. Lidergo handia abantaila da: *Mandela faktorea*. 5. Konponbide negoziatua ahalbidetuko duen ingurunea behar da, funtsean alde guztiei baldintza berdinak ziurtatuko dizkiena, eta horiek konfiantza eraikitzeke neurri gisa ezagutzen dira sarri. 6. Bake prozesu egituratu eta gardena behar da. 7. Hedabide arduratsuak behar dira, bakearen premia aitortu eta bake prozesua kausa

nazional gisa babestuko dutenak. 8. Hiritarrek, gizarte-erakunde zibilen bidez, bake ekintzetan inplikaturik egon behar dute ahalik eta maila gehienetan. 9. Nazioarteko laguntza konstruktibo eta inpartziala behar da.

Bederatzi faktore horiek gurean duten egoeraz Currinek berak zer pentsatzen duen jakin nahi duenak, Elkar argitaletxeak laster kaleratuko duen *Euskal Herria: Errealitatea eta Utopia* liburura jo dezake.

Hemen gatazka nola “konpondu” nahi den adierazten duen datu argigarri bat, hain zuzen ere, bitartekari edo laguntzaileei ematen zaien tratua da. Atzerritarrak eta gatazkatik kanpo dagoen jendea izanik, pentsatzekoa da inpartzialtasun eta objektibotasun nahikoa izango dutela; ba, ez, hemen horien esku-hartzea Estatuaren aldeko politikariek, hedabideek, iritzi-emaelek ezeroso eta gogaikarriztat jo izan dute kasurik onenetan, eta harrokeriaz gutxietsi eta iraindu beste askotan. Nire ustez, etorkizunari leiho berdeak –eta ez grisak– ireki nahi bazaizkio, oso estimatzekoa da bitartekari horien laguntza.

Beraz, *Welcome Mr. Currin and the ICG!* ■



Beldur naiz ETA edo borroka armatuaren aroa ez ote den osasuntsu eta buru-argitasunez itxiko; bukatu bai, baina erdizka eta lardaska. Zergatik diodan hori? Ba, beste bake prozesu arrakastatsu batzuetan izan diren zirkunstantzia lagungarriak gurean ez direlako ametzitzen